

➤ Erreklamazioa egiteko prozedura

Emaitzarekin kontrako erreklamazioa aurkez dezakezu. Horretarako, IVAPeko webgunean argitaratutako erreklamazio-orria bete beharko duzu eta honako helbidera bidali:

IVAP
Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua
Donostia-San Sebastian, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Erreklamazio-epea **2017ko abenduaren 26tik 2018ko urtarrilaren 2ra** artekoa izango da, biak barne.

Epaimahaiak zure azterketa berraztertuko du eta erabakia idatziz jakinaraziko dizu. Erreklamazioen ondorengo behin betiko emaitzak IVAPeko webgunean eta EHAAn argitaratuko dira, **2018ko urtarrilaren 25ean**.

Idatzizko azterketaren emaitzen kontra jarritako erreklamazioaren ondorioz, emaitza GAI bada, erreklamazioaren emaitza jakinarazi eta gutxira, ahozko azterketa IVAPeko Lakuako egoitzan egiteko deia jasoko duzu.